

EUSKARAREN ETORKIZUNA GURE ESKUTAN DAGO

Egun hauetan euskarari buruzko informazioa bilatzen egon gara, eta datu interesgarrienak kontatuko ditut.

Euskal Herriaren kokapena



Euskal Herria Espainiaren eta Frantziaren artean dago kokatuta. Espainia barruan dagoen zati handienean zatian euskara hizkuntza ofiziala da, baina Frantzian eta Nafarroa Garaiko hegoaldean, berriz, ez.

Hizkuntza ofizialak

Hizkuntza ofizial deritzo herrialde, estatu nahiz beste lurralde batean lege balioa duen hizkuntzari. Legegintzan, administrazioan erabiltzen den hizkuntza izaten da.

Lehen aipatu dudan bezala, euskara leku batzuetan oraindik ez da hizkuntza ofiziala



Hiztunen estatistikak:

Hauek dira Euskal Herrian euskara dakiten pertsonak:

EH osoa: **3.155.597 biztanletik 43,4%k.**

EAE: **2.191.722tik 61,4%k.**

Nafarroan: **643.234tik 24%k.**

Ipar EH: **318.205etik 44,5%ek.**

euskera kalean hitz egiten dutenak askoz ere gutxiago dira:

EH osoa: **8,9%**

EAE: **14,8%**

Nafarroan: **6,7%**

Ipar EH: **5,3%**

*Iturriak: Soziolinguistika Klusterra



Zenbat hizkuntza dauden munduan

Munduan 7.000 hizkuntza inguru daude, eta euskara horietako bat da.

Munduan hitzun gehien dituen hizkuntza txinera da. Txineraz gain ingelesa, gaztelera, arabiera, alemaniera, italiara hinduera... asko hitz egiten dira, beheko mapan ikusten den bezala.



Munduan nahiz eta 7.000 hizkuntza egon, horietako asko desagertzeko zorian daude.

Eskala

Munduko 7.000 hizkuntzak eskala batean 1-10era jarriko bagenitu, On hizkuntza hilak egonda eta 10en txinera bezalako hizkuntzak, **non kokatuko zenuke euskara?**

Erantzunak harririkozaituzte: euskara 9. lekuan egongo litzateke. Seguruenik zuetako gehienok euskara askoz ere beherago jarri zenuketela.

Eskala honetan **1.000.000** hiztun inguru dituzten hizkuntzak 9. postutik gora daude, eta hauek dira euskararen datuak: EAE (**790.000**), Nafarroa (**75.000**), Ipar EH (**57.000**) eta Euskal

Herritik kanpo euskara dakiten hiztunak batzen baditugu, milioira iritsiko gara.



Zergatik ikusten dugu geure burua horren txiki

Lehenengo eskalan seguruenik euskara 9. postuan baino baxuago dagoela pentsatu duzu; **zergatik ikusten dugu euskara horren txiki?** Jendeari galdetzean, horrelako gauzak esaten ditu:

- Euskara txikia da.
- Dakien jendeak ez du bultzatzen.
- Euskaldunok bakarrik hitz egiten dugu, eta oso gutxi gara.
- Hizkuntza askorekin konparatuta, oso txikiak gara.

Baina aurreko eskalari bagiraturata, ikusten dugu ez garela pentsatzen genuen bezain txikiak. Hala ere, euskara zaindu behar dugu erraza delako euskara bezalako hizkuntza bat galtzea.



Calvet barometroa

Calvet Frantziako soziolinguista garrantzitsuenetakoa da. Honek Calveten barometroa sortu du. Barometro horretan, euskara **51.** postuan dago kokatuta **563** hizkuntzetatik.

Wikipedian euskarak pisu nabarmena du 35. da artikulu kopurutan. Twitterren dauden 38 hizkuntzetatik horietako bat euskara da.



Calvet socio linguista

Euskararen egoera

Euskararen egoera **UNESCOren** arabera ondorengoa da:

2.470 hizkuntza daude desagertzeko arriskuan munduan.

Number of languages found : 2471



Mapa hau UNESCOk sortu zuen.

Koloreen esanahia:

- Txuria: Zaurgarria
- Horia : Arriskua
- Laranja: Arrisku nabarmena
- Gorria: Arrisku larria
- Beltza:Desagertu/galdu

UNESCOk faktore asko hartu ditu kontuan. Horietatik garrantzitsuena belaunaldi arteko transmisioa da. Hego EHan belaunaldi arteko transmisioa orokorrean ona da:

- Biak euskaldunak izanda, **100%** kasuetan euskara transmititzen da
- Guraso bat erdalduna bada eta bestea euskalduna **%80**ean euskara transmititzen da.

Ipar EHan egoera oso bestelakoa da, gehienetan euskara ez da transmititzen.

Nola aterata armariutik 500.000 euskaldun

Imanol Epelde irakasle eta youtuberrak bere bideo batean *Nola aterata armariutik 500.000 euskaldun* izenekoa, datu hauek ematen ditu: **750.000** hitzun izanda, prentsa euskaraz eta bi liburu irakurtzen dutenak bakarrik **33.000** pertsona dira, euskal kultura konsumitzen dutenak **200.000** besterik ez dira.

Imanolek bideoan aholku batzuk ematen ditu euskarazko kultura eta liburuak konsumitzeko:

- 1-Berak esaten du **2.500** liburu argitaratu direla euskaraz, horietako baten bat zure gustukua izango da seguruenik
- 2-Programatu zure telebista euskal kateak lehenengoak jartzen

3-Irakurri Berria egunkaria eta Argia aldizkaria.

4-Badok app lortu, app honetan euskaraz sortzen diren abesti guztiak daude

5-Euskaraz dauden antzerkiak ikusi noizean behin

https://www.youtube.com/watch?v=7hpC-x4U1zM&feature=emb_title

Ondorioak:

Nik aterata ditudan ondorioak:

Euskara ez badugu zaintzen, azkenean desagertuko da, eta hori ez gertatzeko gehiago erabili beharko dugu. Ez badugu zeozker azkar egiten, damutu egingogara.